

Sortzaileztat du bere burua. Izan ere, komunikatzaile gisa talenturik ez duela uste du. Bere ametsa euskarazko film luze bat egitea dela aitortu du. Sortzaile edo komunikatzaile, azkenean Miren Manias ikerlari gisa aritu da azken lau urteotan. Euskarazko 11 fikziozko film luze aztertu ditu –2005 eta 2012 artean egindakoak–, bakoitzaren produkzio eta finantzazio bideetan arreta jarritz.

2005etik 2015era bitartean 20 fikziozko euskarazko film egin ziren. «Gutxi edo asko?», bera hasten da galdetzen, zalantza eta kontzientzia pizteko asmoarekin. Ondorengo bere azalpenek, ordea, argi asko uzten dute euskarazko film luzeen ahulgu-ne zein indarguneak zeintzuk diren, eta horiei aurre egiteko proposamen batzuk botatzeko ausardia ere erakusten du.

Zer dela eta hasi zinen ikerketa lanetan?

2008-2009 ikasturtean gradu amaierako lanean hiru euskarazko film aztertu nituen (“Aupa Etxebeste!”, “Kutsidazu bidea, Ixabel” eta “Eutsi!”), Ikus-entzunezko Komunikazio ikasketak bukatu ostean pelikula bat egiteko asmo zuzena –edo ametsa– bainuen. Ekoizleak elkarriketatu nituen eta konturatu nintzen kezka nagusia diru kontuak zirela, eta, era berean, zalantzatsu agertzen ziren euskal zinemaren etorkizunarekin. Eusko Jaur-laritzatik ba omen zegoen mugimendu bat euskarazko zinema sustatzearen alde. Dena den, ohartu nintzen hemen, Euskal Herrian, pelikula bat egitea oso zaila dela. Gainera, ikerketa askorik ez zegoen arlo horretan eta tesi bat egiteko aproposa iruditu zitzaidan. Hori izan zen ikerketa motibatu zuena.

Fikzioak al dauka kosturik handiena?

Nik aztertu dudana fikzioa da, beraz, ezin dut konparatu beste proiektu batzuekin. Baina ez dut aztertu fikzioa ekonomikoki garrantzitsua delako edo kostu handia suposatzen duelako.,

«Gabezia bat ikusten dut Europa mailan dagoen legegintza sisteman, ez duelako diskriminazio positiborik egiten hizkuntza gutxituen zinemagintza babesteko»

«Hamasei urte luze pasa behar izan genituen (1989tik 2005era) euskara hutsean egindako film luze bat berriro ere ikusteko»



«Hizkuntzak ez du oztopo izan behar, azpтитuluekin hizkuntza gutxituetan egindako zinema susta daiteke»

baizik eta ikus-entzunezko in-
dustrian fikzioa delako gehien
kontsumitzen den produktua.
Ikus-entzunezko produktuen ar-
tean izarra da. Ez da bakarrik zi-
nema aretoetara heltzen den
produktua, telebistan ere kon-
tsumitzen da; azken batean, au-
dientzia masiboa gehien erakar-
tzen duen generoa da.

**1989tik 2005era arte ez zen
egin fikziozko euskal film luze
bakar bat ere.**

Fikziozko euskara hutseko az-
ken filma “Ke arteko egunak”
izan zen luzaroan, Antton Ezei-
zarena. Gainera, hori ere hasiera
batean ez zen euskaraz egin be-
har. Protagonistek ez zekiten
euskaraz. Nahiz eta gazteleraz
egitea pentsatu, azkenean eus-
karaz filmatu zen eta protago-
nistari bere hitzak bikoiztu egin
zizkioten. Ez dago produkzio-
rik belaunaldi horretan euskal zine-
magile asko Madril eta Bartzelo-
nara joan zirelako lanera.

Eusko Jaurlaritzak 1981ean ja-
rri zituen indarrean lehenengo
diru laguntzak ikus-entzunezko
euskarazko produktuak susta-
tzeko, eta 1991n sistema aldatu
zuen, koprodukzio moduan la-
gunduz Euskal Media erakunde-
aren bitartez. Kopurua jaisteare-
kin batera, laguntzen banaketa
deialdi publiko bidez ez egiteak
zinemagile eta Jaurlaritzaren ar-
tean iskanbila piztu zuen. Hori
dela eta, nabarmen murriztu
zen produkzioa. Hemengo etor-
kizuna ilun ikusirik, batzuek al-
de egin zuten. Horrez gain, ba-
liabide ekonomiko nahikoa ez
egoteak bolada latza eragin
zuen. Gazteleraz ekoiztea zaila
bada, are gehiago euskaraz. Ha-
masei urte luze pasa behar izan
genituen euskara hutsean egin-
dako fikziozko film luze bat be-
rriro ikusteko.

**2000ko lehen hamarkadan
ikus-entzunezko produktuak
bultzatzeko babes politika eza-
rri zuen Eusko Jaurlaritzak. In-
darrean darrai?**

Aurrekontuan gorabehera ba-
tzuk egon dira urte hauetan,
baina gutxi gorabehera bai Jaur-
laritzak eta bai EITBk eutsi egin
diote inbertsio mailari: 2 milioi

euroko aurrekontua ikus-entzu-
nezko produktu guztientzat.
Promozio eta publizitaterako di-
ru laguntzak ere badituzte, eta
Zineuskadi elkartearen bitartez
zinema aretoetara eramaten du-
te euskarazko zinema. Baina ho-
rrez gain, geroztik, ez da sustatu
ezer berririk. Adibidez, inbertsio
pribatua bultzatzeko sistema-
ren bat. Inbertsio pribatua oso
garrantzitsua da ikus-entzunez-
koen sorkuntzan eta hemen, ba-
tez beste, ez du gaintitzen
%27ko langan. Eta askotan
ekoizleen baliabide propioak
izan ohi dira. Halako produktue-
tan inbertitzeko erakunde pri-
batuen interesik ez da, hein
handi batean ez baitaukate be-
raiek erakartzeko xedez eginiko
aldeko politika fiskalik.

**Euskarazko zinemagintzan xe-
de taldea asko murrizten da.
Horrek atzera eginarazten die
eragile pribatuei?**

Hizkuntzak ez du oztopo izan
behar. Hona ekartzen diren peli-
kulak ingelesak dira, edo txina-
tarrak edo poloniarak. Eta bi-
koiztu egiten dira. Baina filmak
azpтитuluekin jatorrizko hiz-
kuntzan emanez gero, hizkun-
tza gutxituetan egindako zine-
ma susta daiteke. Azken batean,
zure produktuak ikustera ikus-
leak joatea nahi baduzu, kontsu-
mo ohitura batzuk bultzatu
egin behar dira. Eta hori telebis-
tako eskaintzatik hasi beharko
litzateke. Telebistan euskarazko
fikziozko film luzeen eskaintza
txikia bada, audientzia ez da
ohitzen halako produktuak kon-
tsumitzera, eta are gutxiago jo-
ango da zinemara. Ez dut, hala
ere, eragile pribatuek horregatik
inbertitzen ez dutenik uste. Zi-
nema oso industria arriskutsua
da eta ez dizu ezerk bermatzen
pelikula batekin arrakasta izan-
go duzunik. Hori da zinemaren
oinarria. Hortik abiatuta inber-
tsio pribatua erakartzea oso zai-
la da. Baina abantailak eskainiz
gero, errazagoa izango da beti.

**Zinema ona egiten dakigu. Bai-
na euskaldunok ez dugu esti-
matzen edo kritikoegiak gara?**
Alde batetik, esango nuke, eus-
kaldunok esaten dugula gure

kultura interesatzen zaigula bai-
na gero ez dugula ezer egiten
kultura hori kontsumitzearen
alde. Egia da kultura hori pro-
muzionatzeko sistema ez dela
oso estrategikoa. Autokritika
egin beharko genukeelakoan na-
go. Administrazioetik gure pro-
duktuari balioa emateko estra-
tegia bat egon beharko litzateke.

Era berean, gertatzen da begi
aurrean jartzen digutenean eus-
kal kulturarekin lotura daukan
eduki bat, ez baldin bazaigu une
horretan gustatu ikusi edo kon-
tsumitu duguna, bigarrenago ba-
tean ez diogula beste aukerarik
ematen. Eta ez da berdina gerta-
tzen atzeritik datozen proposa-
menekin.

**Zein da euskarazko zinemagin-
tzaren indargunea?**

Hemen sormen aldetik gaitasun
handia dago eta ez da istorio
onik falta. Eta beste alde bate-
tik, baliabide teknikoak eta pro-
fesionalak ere badaude. Askok
aurreratu da azken hamarka-
dan, batez ere egiten ikasten de-
lako. Baliabide ekonomiko eta
teknikoak kudeatzen ikasi dugu,
eta, txikiak izan arren, eredu
izan gara krisialdian. Baina ho-
rrekin ez da nahikoa. Egiten du-
gun hori edo egiten ikasi dugun
hori ikusleen begien aurrean ja-
rri behar da orain, bestela ez da
existitzen.

**Euskal zinemak badauka zer-
bait inbidiatzeko Espainiako
edo Europako zinemari?**

Ez. Esan bezala, 80ko hamarka-
dan euskal zinemagile pila bat
joan ziren lanera kanpora, eta,
nolabait, zinemagile horiek izan
ziren Espainiako industriaren
irakasleak. Eta nik uste dut pro-
duktuetan, istorioetan ez diola
zer inbidiatu. Industria handiek
izan ditzaketen antzeko arazoak
azaltzen ditu. Ez dago beste mis-
teriorik. Kontua da telebistako
espazioak kanpoko lanek bete-
tzen dituztela, eta gureak zoko-
ratuta geratzen direla.

Zentzu horretan bai ikusten
dut gabezia bat Europa mailan
dagoen legegintza sisteman, ez
duelako diskriminazio positibo-
rik egiten hizkuntza gutxituen
zinemagintza babesteko. Eta Es-

MIREN
MANIAS MUÑOZ
IKERLARIA

Ikus-entzunezko Komunikazioan
lizentziatutako Miren Maniasek 2005etik
2012ra egindako 11 euskal film aztertu
ditu. Euskal zinemaz aritu gara berarekin.

Ane URKIRI ANSOLA

painiako Kultura Ministerioak diru-poltsa ezabatu du. 2011 arte kataluniarrez, euskaraz eta galegoz egiten zen zinemarentzako diru-poltsa berezia zeukan; 1,2 milioi eurokoa euskarazko zinemaren kasuan.

«Loreak» filmaren arrakastak etorkizuna argitzen du?

Bai, gure errealitatea munduan barrena zabaldu duelako, gure enbaxadorea izango bailitzan. Eta atzerrian sari mordoa irabazi ditu. Uztailaren 3an estreinatu zen AEBetan, euskaraz, azpтитuluekin. Atlantikoaren beste aldean historian lehenengo aldiz estreinatu zen euskaraz egindako film luze bat.

Leiho txiki horretatik, begirada partikular horretatik, gure errealitatea munduan barrena erakustea eta leku batetik bestera garraiatzea ahalbidetzen du, eta hori da zinemaren magia. Ni kontziente naiz, hemen Euskal Herrian, euskarazko zinemak ez duela euskal audientziarekin kontaktua erabat berreskuratu. Baina horrek ez du kentzen kanpora begira hazten hasteko. Motibazio tresna bat izan daiteke zinemagile berrientzako. Eta uste dut “Loreak” –beharbada urte batzuk pasatu beharko dira hau esateko– bigarren inflexio puntua izan daitekeela, lehendabizikoa “Aupa Etxebeste!” izan baitzen 2005ean.

Ez da anekdota hutsalean geratuko?

Administrazioak begiak jartzen baditu fenomeno honetan, ez. Donostiako Nazioarteko Zinemaldian sail ofizialean lehiatu den jatorriz euskara hutsez egindako fikziozko lehen film luzea izan da “Loreak” (“Ke arteko egunak” ere lehiatu zen, baina, lehen esan bezala, jatorrizko produktua ez zen euskaraz). Eta Goya sarietan ere pelikula onenaren saria lortzeko hautagai izan da. Horregatik soilik bada ere, ez da anekdota hutsean geratuko. “Loreak” filmak garbi utzi du zerbait aldatzen ari dela eta horregatik arreta berezia jarri beharko luke administrazioak, hausnarketa sakon bat egiteko; zer egin dugun eta zer egin



Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

«Egiten dugun hori gela batean giltzapean uzten badugu, ez doa inora eta ez dauka etorkizunik»

behar dugun jakiteko. Diagnostiko bat behar du euskal zinemak eta euskal ikus-entzunezko sektoreak. Eta arretarik ez badauka, beharbada, orduan bai geratuko da anekdota hutsean.

Baikor zara?

Bai, hori beti. Oso sektore prekarioa da, baina jende piloa dago lanean. Egun teknologia demokratizatu egin da erabat eta edonork dauka bere eskura kamera bat, edonork egin dezake film labur edo luze bat. Nolabaiteko autodidaktismoa dago.

Eta onuragarria al da hori?

Onerako eta txarrerako da, biak. Izan ere, beti egongo da norbait zu baino merkeago lan egiteko prest. Ikus-entzunezko sektorea oso ezegonkorra da. Gaur lan piloa eduki dezakezu eta bihar ezertxo ere ez. Zinemari begirata behintzat –ikus-entzunezko sektorean ez naiz sartuko, zeren eta hor, beharbada, ez naiz hain

baikorra–, etorkizun laburrari itxaropentsuan begiratzen diot. Badauzkagu arrazoiak horretarako. Baina egiteko eta lanean jarraitzeko asko dago.

Ez da baloratzen hain baliabide gutxiarekin pelikula on bat egiteko gaitasuna?

Noski. Administrazioak badaki baina gauza errazena egiten du: hartu dirua, ipini eta kito. Oso zaila da irtenbide bat aurkitzea gauza guztiei, baina, diru gehiago jarri beharko litzatekeela, seguru. Eta beharbada hemendik aurrera aurrekontu handiagoko filmak egiten hasi. Uste dut sa-soi onean gaudela, badaukagu zer kontatu gure begirada partikular honetatik. Baina egiten den hori gela batean giltzapean uzten baldin badugu, ez doa inora eta horrek ez dauka etorkizunik.

Euskal Herriko zinema batean, ordu berean, euskarazko eta

Hollywoodeko film bana egonez gero, zein garaile?

Nire ustez, ikusle gehiago batuko lituzke AEBetatik datorren pelikulak. Datuek hala diote, behintzat.

Eta azpittituluaren erabilera sustatuta egonez gero?

Horrek pedagogia lan bat eskatzen du. Emaizta ez da lortuko egun batetik bestera. Hezkuntza sistematik bertatik hasi behar da lanean, gero telebistara jauzi egin eta azkenik zinema aretoetara. Hori egiaztatuta dago. Eta ikasketa prozesuan ere eraginkorrak izan ohi dira azpittituluak. Baina egun ez daukagu hori sustatzeko mekanismorik, ez telebistan ezta gure hezkuntza sisteman ere. Hezkuntza oso arlo indartsua da eta ez zaio arretarik jartzen txiki-txikitatik euskarazko ikus-entzunezkoen kontsumoa sustatzeari dagokionez. Hor hasi behar da, animaziozko filmekin, esaterako.